



BILERA-AKTA / ACTA DE REUNIÓN

ZEHAZTASUNAK / DETALLES

Gaia edo arloa / Tema o materia: ESKOLA KIROLEKO LURRALDE KONTSEILUA	
Tokia / Lugar: Aurrez aurrekoa Gipuzkoako Foru Aldundiko "Polivalente 1" aretoa eta On line (TEAMS)	
Eguna / Día: 2024-06-06	Ordua / Hora: 18:30-20:00

PARTAIDEAK (HORIZ) / PARTICIPANTES

Izen-abizenak / Nombres y apellidos		Entitatea / Entidad
Joseba Angulo	BAI (online)	Zumarragako Udala
Arkaitz Angiozar	BAI	Lezoko Udala
Rosa Lasagabaster	BAI (online)	Oñatiko Udala
Yune Amutxastegi	EZ	Zumaiako Udala
Alex Astigarraga	BAI	Urnietako Udala
Iker Lizarribar	BAI (online)	Judo Federazioa
Jose Angel Rial	BAI (online)	Karate Federazioa
Santi Osoro	BAI	Txirrindularitza Federazioa
Nagore Tolosa	EZ	Eskubaloia Federazioa
Garbiñe Egaña	BAI (online)	Atletismo Federazioa
Gurutze Fernandez	BAI	Ikastetxea (Orixe)
Julen Perales	EZ	Ikastetxea (Kurtzebarri (Athlon))
Maialen Pescador	EZ	Ikastetxea (Orereta ikastola)
Patxi Goia	BAI (online)	Ikastetxea (Anoeta ikastola)
Eneko Zabaleta	EZ	Ikastetxea (Azkoitiko Xabier Munibe)
Eneritz Maioara	EZ	GKEF (gonbidatua)
Goizane Álvarez	EZ	GFA / DFG
Marta Pastor	BAI	GFA / DFG
Iñaki Iturrioz	BAI	GFA / DFG
Zuriñe Uranga	BAI	GFA / DFG

GAI-ZERRENDA

ORDEN DEL DIA

1. Aurreko bileraren akta onartzea. 2023/10/18koa	1. Aprobación del acta de la reunión anterior. Del 18/10/2023
2. 2024-25 ikasturteko eskola kiroleko programa onartzea. Aldaketa nagusien laburpen-taula.	2. Aprobar el programa de deporte escolar del curso 2024-25. Tabla resumen de los principales cambios.
3. Kirol hastapen unitateak arautzen dituen foru agindu berria. Komunikazioa.	3. Nueva orden foral que regula las unidades de iniciación. Comunicación.
4. Iraileko jarduerak.	4.Actividades del mes de septiembre.
5. Kirol Ohitu emaitzak 2023-24.	5. Resultados de Kirol Ohitu 2023-24.
6. Norberak ekar ditzazkeenak. Galde-eskaerak.	6. Lo que los y las asistentes puedan traer. Ruegos y preguntas

EZTABAIDAK ETA ERABAKIAK	DELIBERACIONES Y ACUERDOS
Agurra	Saludo
<p>1. Aurreko bileraren akta irakurtzea eta onartzea. Akta aho batez onartu da.</p>	<p>1. Lectura y aprobación del acta de la reunión anterior. Se aprueba el acta por unanimidad.</p>
<p>2. 2024-25 ikasturteko eskola kiroleko programa onartzea.</p> <p>GFAko teknikariak deialdiarekin batera bidalitako taulan jasotako aldaketa garrantzitsuenak azaldu ditu. Horri dagokionez, honako zalantza eta/edo ekarpen hauek sortu dira:</p> <p>1. <u>Kirol bakarrean hasteko programetako jarduerak arautzea</u></p> <p>GFAko teknikaria: hurrengo ikasturterako arautu diren kirol bakarreko programak atletismo- eta arraunketa-modalitateei dagozkie. Atletismoaren kasuan, benjaminen 1.urteko kategoriako irakaskuntza jarduerak arautu dira, eta arraunketaren kasuan, eskaintza 2. urteko alebinen kategorian sartu da eta kategorior horretako irakaskuntzak arautu dira.</p> <p>Araudi horren esparruan, 2. urteko alebinen kategoriako arraun-jarduerak, gainera, kategoria horietako ikastetxeetako multikirol jardueren osagarriak izango dira. Irizpide hori aurreko bi ikasturteetan araututako beste modalitate batzuetan ere adostu zen.</p> <p>Irizpide hori pixkanaka ezarriko da arautzen diren modalitate guztietan, eta, horregatik, 2025-26 ikasturteari begira, Gipuzkoako Atletismo Federazioak (GAF) eta GFAk irizpide hori ezartzen hastea adostu dute.</p> <p>Gainera, akordio horien esparruan, eta GAFk eskatuta, udalerrietako multikiroleko egutegietan atletismo modalitatea sustatzeko aukera aztertuko da.</p> <p>2. <u>Parte hartzeko lurralde-eremua mugatzea.</u></p> <p>GFAko teknikariak: adin txikiko kirolarien interes gorenarekin dela eta, joan-etorriak murrizteko eta ikasleek bere eremu hurbilenean parte hartzeko helburuarekin, benjamin eta alebinen kategorietan, eskola kiroleko programan araututako modalitateetako jardueretan eta errendimenduan hasteko lehiaketetan (alebin 2. urtea) parte hartzen duten ikasleek bizi diren edo ikasketak egiten duten udalerrietako klubetan parte hartu beharko dute. Foru-organismoek irizpide hori aplikatzeko aukera Euskadiko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Lege berrian jasotzen da.</p> <p>Bizi diren udalerrian edo ikasten duten udalerrian egin nahi den modalitatea edo diziplina garatzen duen klubarik ez badago, udalerririk hurbileneko klub batean parte hartu ahal izango dute.</p> <p>Parte hartzeko lehiaketetan, irizpide hori progresiboki aplikatuko da, eta, beraz, modalitate bakoitzaren eranskinetan</p>	<p>2. Aprobar el programa de deporte escolar del curso 2024-25.</p> <p>Técnica de la DFG explica las modificaciones más relevantes recogidas en la tabla enviada con la convocatoria. Respecto a ello, surgen las siguientes dudas y/o aportaciones:</p> <p>1. <u>Regularización de las actividades de los Programas de iniciación monodeportiva</u></p> <p>Técnica de la DFG: los programas monodeportivos que se han regulado para el curso que viene son los correspondientes a las modalidades de atletismo y remo. En el caso del atletismo, se han regulado las actividades de enseñanza de la categoría 1º benjamín y en el caso del remo, se ha incluido la oferta en la categoría alevín de 2º año y se han regulado las enseñanzas en esa categoría.</p> <p>En el marco de dicha regulación, las actividades de remo en la categoría alevín de 2º año, además, serán complementarias de la actividad de Multikirola de los centros escolares en las categorías. Este criterio ya fue acordado en otras modalidades reguladas en los dos cursos anteriores.</p> <p>Este criterio se va establecer de manera progresiva en todas las modalidades que vayan regulándose y es por eso que, de cara al curso 2025-26 la Federación Guipuzcoana de Atletismo (FGA) con la DFG ha acordado comenzar a establecer este criterio.</p> <p>Además, en el marco de dichos acuerdos y a petición de la FGA, va analizarse la posibilidad de fomentar la modalidad de atletismo en los calendarios de multikirola de los diferentes municipios.</p> <p>2. <u>Limitación del ámbito territorial de participación.</u></p> <p>La técnica de la DFG: a fin de proteger el interés superior de las personas menores, reducir los desplazamientos y fomentar la participación en el ámbito más cercano de los y las escolares, en categoría benjamín y alevín, los y las escolares que participen en las actividades de las modalidades reguladas en el programa de deporte escolar, así como en las competiciones de iniciación al rendimiento (2º año alevín), deberán hacerlo en los clubes de sus municipios de residencia o de escolarización. La posibilidad de que los órganos forales puedan aplicar este criterio se recoge en la nueva Ley de Actividad Física y Deporte de Euskadi.</p> <p>En caso de que no haya un club que desarrolle la modalidad o disciplina que se quiera realizar en el municipio, podrán participar en un club del municipio más cercano.</p> <p>En las actividades de competición participación, este criterio se aplicará de manera progresiva, por lo que los detalles se</p>



<p>ezartzen dira xehetasunak.</p> <p>3. <u>Eskola kiroleko joko araudiak.</u></p> <p>Modalitate desberdinetako joko aradiak GFaren kirol-webgunean argitaratu dira. Hemendik aurrera, joko arauak foru agindu bidez onartuko dira. Horretarako, federazioei eskatu zaie uztailaren 15erako bidal ditzatela araudi eguneratuak, bai eta horien onarpena jasotzen duen Batzarraren akta ere.</p> <p>Txirriindularitzako federazioak jakinarazi du, beraien kasuan, batzarrak urte amaieran egiten direla.</p> <p>Kirol teknikariak jakinarazi du prozesu hori pixkanaka egingo dela, urte betean denak edo gehienak modu horretan onartuta egon daitezten. Beraz, aipatzen zaie urte amaieran bidali ahal izango dituzuela dokumentuak, Batzarra egin ondoren.</p> <p>4. <u>Errendimenduan hasteko ibilbidea</u></p> <ul style="list-style-type: none">• Errendimenduan hasteko lehiaketetan parte hartzen duten modalitate kolektiboetako taldeek bete beharreko baldintzak. <p>GFAko teknikariak azaldu du errendimenduan hasteko lehiaketetan parte hartzeko kirol kolektiboek klubek bete behar dituzten baldintzen artean jasotzen dela klubek taldeak izan behar dituztela kategoria desberdinetan senior kategoriaraino.</p> <p>Ildo horretan, ikusi da klub batzuek ez dutela senior-talderik, filialitate-hitzarmen bat dutelako beste klub batzuekin. Hitzarmen horretatik abiatuta, senior kategoriako jarduera afiliatutako baren bitartez garatzen dute.</p> <p>Kirol Zerbitzuari egokia iruditzen zaio egoera horiek kontuan hartzea, eta, beraz, baldintza aldatu egin da, honako hau gehituta: <i>"Klubak senior kategoriako jarduera garatzeko, filialitate-hitzarmen bat eduki ahal izango du beste klub batekin"</i>.</p> <ul style="list-style-type: none">• Talde finkoak: Modalitate kolektiboetako taldeei dagokienez, jokalariek ikasturte osoan berberak izan beharko dutela gaineratu da.• Federazioekin adostutako egutegietako jardunaldietan parte hartzea. Oro har, lehiaketa horietan parte hartu nahi duten kirol-klub edo -elkarteei dagokion federazioarekin adostutako egutegian jasotako topaketa eta lehiaketa guztietan parte hartu beharko dute. <p>Horren harira, Urnietako Udaleko teknikariak galdetzen du ea</p>	<p>establecen en los anexos de cada modalidad.</p> <p>3. <u>Reglamentos de juego de deporte escolar.</u></p> <p>Los reglamentos de juego de las diferentes modalidades se han ido publicando en la web de deportes de la DFG. A partir de ahora, los reglamentos van a aprobarse por Orden Foral. Para ello se ha solicitado a las federaciones que para el 15 de julio envíen los reglamentos actualizados, así como el acta de la Asamblea en la que se recoja la aprobación de los mismos.</p> <p>La federación de ciclismo informa que, en su caso, las Asambleas se celebran a finales de año.</p> <p>La técnica de deportes informa de que este proceso va a ir haciéndose poco a poco para que en un año estén todos o la mayoría aprobados de esta manera. Por tanto, se les informa de que podrán enviar sus documentos a finales de año, una vez celebrada la Asamblea.</p> <p>4. <u>Itinerario de competición de participación</u></p> <ul style="list-style-type: none">• Condiciones que deberán cumplir los equipos de modalidades colectivas que participen en las competiciones de iniciación al rendimiento. <p>La técnica de la DFG expone que entre las condiciones que deben cumplir los clubes de deportes colectivos para participar en las competiciones de iniciación al rendimiento se recoge que los clubes deben tener equipos en diferentes categorías hasta la senior.</p> <p>En este sentido, se ha visto que algunos clubes no cuentan con equipos seniors debido a un convenio de filialidad con otros clubes, a partir del cual, acuerdan que la actividad de la categoría senior la desarrollan en el club afiliado.</p> <p>El Servicio de Deportes considera oportuno tener en cuenta estas situaciones por lo que se ha modificado la condición añadiendo que <i>"El club podrá contar con un convenio de filialidad con otro club para el desarrollo de la actividad con la categoría senior"</i>.</p> <ul style="list-style-type: none">• Equipos estancos: En relación a los equipos de modalidades colectivas, se ha añadido que, los y las jugadoras deberán ser las mismas en todo el curso escolar.• Participación en jornadas de los calendarios acordados con las federaciones correspondientes. Con carácter general, los clubes o agrupaciones deportivas interesados en tomar parte en dichas competiciones deberán participar en todos los encuentros y competiciones recogidas en el calendario acordado con la correspondiente federación para el curso vigente. <p>Al hilo de esto, el técnico del Ayuntamiento de Urnieta pregunta</p>
--	--



<p>horrek benjamín kategorian ere errendimenduko ibilbidea egotea suposatzen duen.</p> <p>Teknikariak ezetz erantzun du, azken urteetan gertatu diren egoerak zuzentzeko ezartzen den lehiaketa-arau orokorra dela. Zehazki, kasu batzuetan, benjamin edo alebin kategorietako taldeek ez dute topaketa batean parte hartu nahi izan, eta, aldi berean, baimendu gabeko lagunarteko partidak jokatu dira.</p> <p>Bestalde, Txirrindularitzako federazioko teknikariek galdetu dute ea LOPIViko ikastaro gehiago egingo diren.</p> <p>Zerbitzuburuak erantzun du eskaintza berriak egitea aurreikusten dela, baina ordainpekoak izango direla eta Aldunditik Kirol Ene bidez ikastaroak doakoak izateko eskaera luzatu zaiola Eusko Jarularitzari.</p> <p>Azkenik, aldaketak azaldu eta zalantzak argitu ondoren, <u>2024-25 ikasturteko Eskola adineko JFetaK Programa aho batez onartu da programa.</u></p>	<p>a ver si esto supone que en categoría benjamín también haya rendimiento.</p> <p>La técnica contesta que no, que es una norma general de competición que se establece de cara a corregir actuaciones que se han ido dándose en los últimos años. En concreto, en algunos casos, equipos benjamines o alevines no han querido participar en un encuentro y, paralelamente se han disputado partidos amistosos no autorizados.</p> <p>Por otra parte, los técnicos de la Federación de Ciclismo preguntan si van a realizarse más cursos de LOPIVI.</p> <p>El Jefe del Servicio contesta que se prevé que haya nuevas ofertas, pero que serán de pago y que desde la DFG se ha pedido al Gobierno Vasco que los cursos sean gratuitos a través de Kirolene.</p> <p>Tras explicar las modificaciones y aclarar las dudas, <u>se aprueba el programa por unanimidad el programa de actividades de AF y D en edad escolar del curso 2024-2025.</u></p>
<p>3. Kirol hastapen unitateak arautzen dituen foru agindu berria. Komunikazioa.</p> <p>2023ko urriaren 18ko bileran azaldu zen bezala, eguneratu egin da futbol, saskibalo, eskubalo eta errugbiko hastapeneko unitateak (kirol eskolak) arautzen dituen Foru Agindua.</p> <p>Foru Agindu berria maiatzaren 2an argitaratu zen, eta udan zehar horren berri emateko asmoa dago. Foru Agindua GFAko web gunean eskuragarri dago (hemen).</p>	<p>3. Nueva orden foral que regula las unidades de iniciación. Comunicación.</p> <p>Tal y como se expuso en la reunión del 18 de octubre de 2023, se ha actualizado la Orden Foral que regula las unidades de iniciación (escuelas deportivas) de fútbol, baloncesto, balonmano y rugby.</p> <p>La nueva orden foral se publicó el 2 de mayo y se prevé hacer una comunicación de la misma a lo largo de verano. La Orden Foral está publicada en la web de la DFG (aquí).</p>
<p>4. Iraileko jarduerak</p> <p>Teknikariak azaldu duenez, eskola kiroleko programaren bitartez, bertan araututako kirol bakarreko hastapen programetan, aukera ematen zaie 2. urteko alebin kategoriako eskola umeei entrenamenduak egiteko.</p> <p>Azpitarratu da ezin izango dela bestelako jarduerarik egin, entrenamendu saioak soilik eta kategoría horretan.</p> <p>Horretarako, klub interesdunek telematikoki eskatu beharko dute baimena, horretarako gaitutako atalean. Gainera, eskabidearekin batera, klubeko arduradunek sinatutako orri bat aurkeztu beharko dute, bertan jasotzen diren konpromisoak onartzen dituen.</p> <p>Txantilo hori prest dago, eta hauek dira dokumentuan jasotzea aurreikusten diren konpromisoak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Eskaeran aurkeztutako informazioan aldaketarik egongo balitz, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta dagokion udalari aldaketen berri emango diola. • Irailean egingo den eskaintza emakumezko zein gizonezko eskola umeentzat izatea. 	<p>5. Actividades de septiembre</p> <p>La técnica expone que, en los Programas de iniciación monodeportiva regulados en el programa de deporte escolar, se habilita la posibilidad de que los y las escolares de 2º año alevín puedan realizar entrenamientos.</p> <p>Se subraya que no podrán hacerse otro tipo de actividades, únicamente sesiones de entrenamiento y en esa categoría.</p> <p>Para ello, los clubes interesados deberán solicitar de manera telemática una autorización en el apartado habilitado a tal fin. Además, junto con la solicitud deberán presentar una hoja firmada por el responsable del club en el que acepten los compromisos que se recogen en la misma.</p> <p>Dicha plantilla ya está preparada y estos son los compromisos que se prevé que recoja el documento:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Que si hubiera un cambio en la información presentada en la solicitud, se informará del mismo a la Diputación Foral de Gipuzkoa y al ayuntamiento correspondiente. • Que la oferta que se realice en septiembre sea tanto para escolares de categoría femenina como masculina.



<ul style="list-style-type: none"> • Irakaskuntza-saioak (entrenamenduak) baino ez dira egingo (gehienez 2 saio astean), eta, beraz, ez da lehiaketetan, topaketetan, lagunarteko partidetan edo kirol eskolen arteko bestelako jardueretan parte hartuko edo antolatu. • Erakundeak Gipuzkoako kirol hastapenaren ereduaren berri emango die jarduera honetan parte hartuko duten adingabeen gurasoei eta legezko tutoreei, eta GFaren webgunean (https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/kirolak/eskolakirola) horretarako eskuragarri dagoen informazioa emango die. • Erakundeak berariaz jakinaraziko die jarduera horretan parte hartzen duten adingabeen gurasoei eta legezko tutoreei, urriaren 1ean klubean jarraituz gero, dagokien ikastetxeetako Multikirola programan izena eman eta parte hartu beharko dutela. <ul style="list-style-type: none"> • Entrenamendu saioen kopuruari dagokionez, urriaren 1etik aurrera, ikasle horiek parte hartzen duten taldeek maiatzaren 2ko FA-KG-2024-0213 Foru Aginduan jasotako irizpideei jarraitu beharko diete. • Klubeko arduradunak sinatutako eta zigitatutako konpromiso-dokumentu bat izatea, aurreko puntuak jasotzen dituen. <p>Horri dagokionez, Urnietako teknikariak galdetu du ea Udalak sinatutako zerbait aurkeztu beharko duten.</p> <p>Teknikariak ezetz erantzun dio, kirol eskolen kasuan, aurreko urtean kirol eskola baimenduta izan duten klubek bakarrik garatu ahal izango dituzte jarduera hauek. Modu horretan udal instalazioen kudeatzailearen baimena dutela egiaztatzen dugu.</p> <p>Hala ere, urriaren 1etik aurrera garatuko dituzten jardueretarako, aurreko urteetan bezala, udalek sinatutako adostasuna ere aurkeztu beharko dute.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Únicamente se realizarán sesiones de enseñanza (entrenamientos) (máximo 2 sesiones semanales) y, por tanto, no se organizarán ni se participará en competiciones, encuentros, partidos amistosos, ni en otras actividades entre escuelas deportivas. • La entidad informará a los padres, madres y tutores/as legales de los y las menores participantes en esta actividad sobre el modelo de iniciación deportiva de Gipuzkoa, facilitando la información disponible a tal fin en la página web de la DFG www.gipuzkoakirolak.eus. • Que la entidad comunicará de forma expresa a los padres, madres y tutores/as legales de las personas menores que participen en esta actividad que, de continuar en el club el 1 de octubre, deberán inscribirse y participar en el programa Multikirola de los centros educativos correspondientes. <ul style="list-style-type: none"> • En cuanto al número de sesiones de entrenamiento, a partir del 1 de octubre, los equipos en los que participen estos y estas escolares deberán seguir los criterios recogidos en la Orden Foral FA-KG-2024-0213, de 2 de mayo. • Disponer de un documento de compromiso firmado y sellado por el responsable del club en el que consten los puntos anteriores. <p>A este respecto, el Técnico de Urnieta pregunta si tendrán que presentar algo firmado desde el Ayuntamiento.</p> <p>La técnica responde que no, que en el caso de las escuelas deportivas sólo podrán desarrollar estas actividades los clubes que hayan tenido autorizada la escuela deportiva el año anterior. De esta forma comprobamos que disponen de la autorización del gestor de las instalaciones municipales.</p> <p>No obstante, para las actividades que se desarrollen a partir del 1 de octubre, deberán presentar, como en años anteriores, el acuerdo firmado por los ayuntamientos.</p>
<p>5. Kirol Ohitu emaitzak 2024</p> <p>Zerbitzuburuak azaldu du, behin baino gehiagotan jakinarazi den bezala, UPV/EHU, GFako Kirol Zuzendaritzarekin lankidetzan, duela bi urtetik hona Kirol Ohitu izeneko ikerketa-proiektu bat egiten ari dela. Proiektu horren helburua da Gipuzkoako 8 eta 12 urte bitarteko ikasleen jarduera fisikoko eta kirol-jarduerako ohiturak eta horien bilakaera ezagutzea.</p> <p>Horretarako, lagin adierazgarri batean bildutako ikastetxeen laguntzarekin, ikasleek online galdetegi bat betetzen dute.</p> <p>Aurreko ikasturtean bezala, 2023-24 ikasturteko emaitzak aurkeztu dira.</p> <p>Azpirarratu behar da emaitzak oso positiboak izan arren, eta aurreko urteekiko aldaketarik izan ez bada ere, nesken eta mutilen arteko aldea esanguratsua dela oraindik ere, eta, beraz, hori da Zerbitzuaren politiken bidez hobetu beharreko erronketako bat.</p> <p>Informazio guztia GFaren webgunean kontsulta daiteke.</p>	<p>6. Resultados de Kirol Ohitu 2024</p> <p>El Jefe de Servicio explica que, tal y como se ha comunicado en diferentes ocasiones, la UPV/EHU, en colaboración con la Dirección de Deportes de la DFG, desde hace dos años está realizando un proyecto de investigación denominado Kirol Ohitu, cuyo objetivo es conocer los hábitos de actividad física y deportiva (AFyD) de los escolares de Gipuzkoa de 8 a 12 años y su evolución en el tiempo.</p> <p>Para ello, con la ayuda de los centros escolares incluidos en una muestra representativa, los y las escolares rellenan un cuestionario online.</p> <p>Al igual que en el curso anterior, se han presentado los resultados del curso 2023-24.</p> <p>Destacar que a pesar de que los resultados son muy positivos, y no han variado respecto a los años anteriores, la diferencia entre chicas y chicos sigue siendo significativa por lo que ese es uno de los retos a mejorar a través de las políticas del Servicio.</p> <p>Toda la información se puede consultar en la página web de la DFG.</p>



<p>Txirrindularitzako Federazioko teknikariek galdetzen dute ea galdeketa galdetzen zaien jardura fisikoa erregulartasunez egiten ez duten pertsonak izan ditzaketen eragozpenei buruz.</p> <p>Zerbitzuburuak erantzun du erantzuna aldatu egiten dela mutilen eta nesken artean. Nolanahi ere, erantzun gehienek diote ez dagoela inolako oztoporik, baina sexuaren arabera aldeak daudela, hala nola lehiaketa ez gustatzea, betebeharrak asko izatea edo denborarik ez izatea, besteak beste.</p> <p>Lezoko teknikariak galdetu du ea, oztopoa "ez zait lehiatzea gustatzen" bada, zergatia galdetu zaien. Azaldu duenez, kasu batzuetan, lehiaketa baino gehiago, gustatzen ez zaiena dela horrek dakarren erakusketa publikoa eta konparazioekiko beldurra.</p> <p>Zerbitzuburuak adierazi du galdetegia ez dela xehetasun horretara iristen baino interesgarria izango litzatekela datu hori jakitea.</p>	<p>Los técnicos de la Federación de Ciclismo preguntan si se en el cuestionario se les pregunta sobre los obstáculos que pueden tener a aquellas personas que no practican actividad física de manera regular.</p> <p>El Jefe del Servicio responde que sí y señala que las respuestas varían entre los chicos y las chicas. En cualquier caso, la mayoría de las respuestas es que no existe ningún obstáculo pero sí que existen algunas diferencias en función del sexo, como no gustarles la competición, tener muchos deberes o no tener tiempo, entre otros.</p> <p>El técnico de Lezo pregunta si, en el caso de que el obstáculo sea "no me gusta competir", se les pregunta el motivo. Expone que, en algunos casos, más que la competición lo que no gusta es la exposición pública que ello conlleva y el miedo a las comparaciones.</p> <p>El Jefe del Servicio señala que el cuestionario no llega a ese detalle pero que sería interesante conocer ese dato.</p>
<p>7. Norberak ekar ditzazkeenak. Galde-eskaerak.</p> <ul style="list-style-type: none"> • <u>"Zer da Multikirola" proiektua</u> <p>Lurralde Kontseiluko kidei proiektua azaldu zaie.</p> <p>Kirol Zerbitzua, Gipuzkoako eskola kiroleko eragileekin batera, etorkizuneko Gipuzkoako multikiroleko eredu osatzen hasi da. Oraingoan, eskola kiroleko koordinatzaileekin, udal teknikariek eta aditu talde batekin bilerak egin dira. Bilera horietan lehenengo zirriborroa aurkeztu da eta galdegi baten bitartez, bertan jasotzen diren irizpideen inguruko ekarpenak eskatu dira.</p> <p>Hurrengo hilabeteetan zehar, federazio eta kirol klubekin ere partekatuko da informazio guztia. Helburua da, 2024ko azarorako behin-betiko dokumentua prest izatea eta eredu pixkanaka Gipuzkoako udalerriri guztietan garatzen hastea. Horretarako, trantzizio epeak onartuko dira, udalerriko ereduak eredu berrira egikitu ditzaten.</p> <ul style="list-style-type: none"> • <u>Donostiako Guraso talde batek aurkeztutako idatziaren azterketa.</u> <p>Aurtengo apirilean, Donostiako guraso talde batek idatzi bat aurkeztu zuen, Gipuzkoako eskola kirolaren ereduaren zenbait muga eta irizpideri buruzko iritzia eta kezka helarazteko. Familia horiek futboleko, saskibaloian, padelean eta atletismoan kirol klubak bidez aritzen diren seme-alaben gurasoak ziren.</p> <p>Bestalde, maiatzaren 7an, Zerbitzuburuak, Kiroleko zuzendaria eta Kultura eta Kiroleko Diputatua familia-talde horrekin bildu ziren, familiei arreta emateko eta kontsultei erantzuteko.</p>	<p>6. Lo que los y las asistentes puedan traer. Ruegos y preguntas</p> <ul style="list-style-type: none"> • <u>Proyecto "Zer da Multikirola"</u> <p>Se explica el proyecto a los miembros del Consejo Territorial.</p> <p>El Servicio de Deportes, junto con el resto de agentes de deporte escolar guipuzcoano, ha comenzado a configurar el modelo Multikirola de Gipuzkoa del futuro. De momento, se han mantenido reuniones con coordinadores de deporte escolar, técnicos y técnicas municipales y un grupo de expertos. En estas reuniones se ha presentado un primer borrador y se han solicitado aportaciones a través de una encuesta sobre los criterios que se recogían en el mismo.</p> <p>A lo largo de estos meses, también se compartirá toda la información con federaciones y clubes deportivos.</p> <p>El objetivo es tener listo el documento definitivo para noviembre de 2024 y comenzar a desarrollar progresivamente el modelo en todos los municipios de Gipuzkoa. Para ello, se admitirá un periodo transitorio para que los modelos actuales de los municipios de Gipuzkoa se adapten al modelo referente.</p> <ul style="list-style-type: none"> • <u>Análisis del escrito presentado por un grupo de padres y madres de San Sebastián.</u> <p>En abril de este año, un grupo de padres y madres de Donostia presentaron un escrito mediante el cual querían trasladar su opinión y preocupación sobre algunos límites y criterios del modelo de deporte escolar de Gipuzkoa. Estas familias representaban a madres y padres de hijos que practican fútbol, baloncesto, pádel y atletismo a través de clubes deportivos.</p> <p>Por otra parte, el 7 de mayo, el Jefe del Servicio, la Directora de Deportes y la Diputada de Cultura y Deportes se reunieron con</p>

Bilera horren ondorioz, Kirol Zerbitzu honek Eskola Kiroleko Lurralde Kontseiluarekin partekatu nahi zuen dokumentua, Kontseilua osatzen duten eragileen ikuspuntua jasotzeko eta organoaren iritzi orokorra izateko.

Bileran dokumentua partekatu ondoren, hauek dira jasotako ekarpenak:

- Gipuzkoako Txirrindularitza Federazioa: Bat dator egungo ereduarekin.

- Lezoko udal teknikaria: ebidentzia zientifikoa oso argia da lehenengo etapetan jarraitu beharreko irizpideekin. Gainera, garrantzitsua da azpimarratzea adin horietako kirol-hastapena ikasleen hezkuntzaren parte dela, eta, beraz, pedagogia-lanak pisu handia duela.

- Gipuzkoako Txirrindularitza Federazioa: Familia askok asteburuetan partida/lehiaketa gehiago egiteko eskatzen dute, baina gero ez daude antolaketan laguntzeko prest. Lezoko teknikariak aipatutakoaz gain, familia asko asteburuko jardura hauek antolatzeak dakarren lan kargaz ez direla jakitun uste dute.

- Anoeta Ikastolako eskola kiroleko koordinatzailea: Familia askok egin ohi duten akatsa beste lurralde batzuetako ereduarekin alderatzea da. Gainera, ez dakite, frogatu den bezala, adin goiztiarretan espezializatzeak eragin zuzena duela JF eta K praktika goiz uztearekin. Gainera, familia batzuentzat asko dira larunbatetako Multikirolako asteburuko jardunaldiak, baina gero igandeetako jardunaldi kopurua handitzea eskatzen dute.

- Gipuzkoako Txirrindularitza Federazioa: Datuek erakusten dute gaur egun egiten den ereduak oso emaitza onak dituela zentzu guztietan, bai errendimenduan, bai lurraldeko pertsona aktiboen kopuruan. Garrantzitsua da azpimarratzea, adin txikietan, kirolaren ebidentziak eta legeak joko librea nabarmentzen dutela jardura nagusi gisa, eta, beraz, ezinbestekoa dela jardura horiek sustatzea, bai eta jokoaren bidez modalitate desberdinak ikastea ere.

- Oñatiko udal teknikaria: Idatzia egin duten gurasoen eskaerak onartzea oso ondo funtzionatzen duen eredu batean atzera egitea izango litzatekeela gaineratu du. Gainera, garrantzitsua da adin goiztiarretan antolatu gabeko jardura sustatzea.

- Orixe Ikastolako eskola kiroleko koordinatzailea: Familia horien proposamenak onartzeak, prozesuak, bizkortzea eta ikasleen gaitasunen ezberdintasunak ikusten diren unea

este grupo de familias con el fin atender y resolver sus consultas.

A raíz de esa reunión este Servicio de deportes quería compartir con el Consejo Territorial de Deporte Escolar el documento para recoger el punto de vista de los agentes que lo forman y contar con una opinión general del órgano.

Tras compartir el documento en la reunión, estas son las aportaciones recogidas:

- Federación Guipuzcoana de Ciclismo: Se muestra de acuerdo con el modelo actual.

- Técnico municipal de Lezo: La evidencia científica es muy clara con los criterios que deben seguirse en las primeras etapas. Además, es importante recalcar que la iniciación deportiva en estas edades forma parte de la educación de los y las escolares por lo que la labor pedagógica tiene mucho peso.

- Federación Guipuzcoana de Ciclismo: Añade que muchas familias solicitan realizar más encuentros/competiciones los fines de semana, pero luego no están dispuestos a ayudar en la organización. Consideran que, además de lo mencionado por parte del técnico de Lezo, muchas familias no son conscientes del trabajo que supone organizar estas actividades de fin de semana.

- Coordinador de Anoeta Ikastola: El error que suelen cometer muchas familias es el compararse con los modelos de otros territorios. Además, no son conscientes de que tal y como se ha demostrado, especializarse en edades tempranas en una modalidad en particular está directamente relacionado con el abandono temprano de la práctica de AF y D. Además, para algunas familias son muchas las jornadas de fin de semana de Multikirola de los sábados, pero luego solicitan aumentar las jornadas de los domingos.

- Federación Guipuzcoana de Ciclismo: Los datos demuestran que el modelo que se lleva a cabo actualmente tiene muy buenos resultados en todos los sentidos, tanto en el rendimiento como en el número de personas activas en el territorio. Es importante recalcar que en edades tempranas tanto la evidencia como la ley del deporte destacan el juego libre como actividad principal, por lo que es imprescindible fomentar dichas actividades, así como el aprendizaje de distintas modalidades mediante los juegos.

- Técnica municipal de Oñati: Añade que aceptar las solicitudes de los padres que han hecho el escrito sería ir para atrás en un modelo que se ha demostrado que funciona muy bien. Además, es importante que se fomente la actividad no organizada en edades tempranas.

- Coordinadora de deporte escolar de Orixe Ikastola: Aceptar las propuestas de estas familias conllevaría acelerar los procesos y adelantar el momento en el que se viesen las



aurreratzea ekarriko luke. Horrela, ikasleen arteko alderaketa areagotuko litzateke eta, beraz, horietako askoren frustrazio-arriskua areagotuko litzateke.

- Urnietako udal teknikaria: Aipatutakoa saihesteko, garrantzitsua da mugak jartzen jarraitzea, batez ere errendimenduan hasteko ibilbidean; izan ere, ikasle batzuk nabarmentzen hasi dira gainerako ikaskideekin alderatuta.

Horrekin guztiarekin ondorioztatzen da ez dela onuragarritzat jotzen adingabeen intereserako, ez eta haien garapen integralerako ere, lehiaketa-jardunaldiak gehitzea eta entrenamendu-saioak areagotzea. Garrantzitsua da azpimarratzea Lehen Hezkuntzako 6. mailara arteko adinetan, kirolaren hastapena adingabeen hezkuntzaren parte dela, eta, beraz, ezinbestekoa dela ikaskuntza-prozesuari lehentasuna ematea emaitzari baino. Gainera, jarduera ludikoen bidez saioak egitea onuragarria da, kategorietan aurrera egin ahal zuzenduak izan daitezkeenak.

Antolatu gabeko jarduera sustatzen duen eredu bati eustekak ikasleen gozamenaren sustatzen du, presiorik eta beren gaitasunengatik edo trebetasunengatik konparaziorik gabe.

- Anoeta ikastolako koordinatzailearen ekarpena.

Anoeta ikastolako koordinatzaile Patxi nabarmendu du gimnastika erritmikoaren, igeriketaren eta judoaren modalitateetan benjamin kategoriaren aurretik hasi ahal izateak eta araututa ez egoteak eragiten duela modalitate horietan hasten diren haur askok hurrengo urteetan bertan jarraitzea eta multikirola ez egitea. Horrek batez ere neskei eragin diezaieke, eta genero-arrakala oraindik ere egoteko arrazoietakoa bat izan daiteke.

Orixe ikastolako koordinatzaileak gaineratu du, modalitate horiek arautzea arrakala hori murrizteko bidea izan daitekela.

Zerbitzuburuak azaldu du pandemia hasi aurretik modalitate horiek arautzen hasi zirela, baina pandemiarekin erregulazio-prozesua eten egin zela.

Nabarmendu behar da, halaber, ebidentzia zientifikoak jasotzen duela igeriketa, gimnastika eta irristaketa artistikoa bezalako modalitateetan ez dela ebidentziarik agertu modalitateetan hasteko adinari buruz 8 urtetik aurrera. Modalitate edo diziplina horietan, gainerako modalitateekin egiten den bezala, kasuz kasu, hasierako prozesurik onena zein den aztertuko da, adingabeen interesari lehentasuna emanez.

Anoeta ikastolako koordinatzailea ados dago horrekin, eta azterlan hori babesten du, baina 8 urtetik aurrera, hau da, benjamin kategoriatik aurrera, ikasle horiek multikirolean parte

diferencias de las capacidades de los y las escolares, aumentando con ello la comparación entre las y los escolares y, por tanto, aumentando el riesgo de frustración de muchos y muchas de ellas.

- Técnico municipal de Urnieta: Con el fin de evitar lo mencionado anteriormente, es importante seguir poniendo límites, especialmente en el itinerario de iniciación al rendimiento donde, algunas y algunos escolares ya empiezan a destacar respecto al resto de compañeros/as.

Con todo esto se llega a la conclusión de que no se considera beneficioso para el interés de las personas menores, así como para su desarrollo integral el aumento de jornadas de competición ni aumento de sesiones de entrenamiento. Es importante destacar que en las edades comprendidas hasta 6º de Primaria, la iniciación al deporte forma parte de la educación de los y las menores y que como tal es imprescindible dar prioridad al proceso de aprendizaje antes que al resultado. Además, se ve beneficioso el desarrollo de sesiones mediante actividades lúdicas, las cuales puedan ir dirigiéndose según se avanza en las categorías.

Mantener un modelo en el que se fomente la actividad no organizada fomenta el disfrute de los y las escolares sin presiones ni comparaciones por sus capacidades o habilidades.

- Aportación del coordinador de deporte escolar de la ikastola Anoeta.

El coordinador de Anoeta ikastola Patxi destaca que, en las modalidades de gimnasia rítmica, natación y judo el hecho de poder comenzar antes de la categoría benjamín y que no estén reguladas, hace que muchos y muchas escolares que se inician en esas modalidades, sigan su trayectoria ahí en los años siguientes y no realicen multikirola. Esto puede afectar especialmente a las chicas y ser uno de los motivos por el cual sigue existiendo una brecha de género.

La coordinadora de Orixe ikastola añade, regular esas modalidades puede suponer una vía para reducir dicha brecha.

El Jefe del Servicio explica que antes de empezar la pandemia se empezó a regular estas modalidades, pero con la pandemia se paralizó el proceso de regulación.

Destacar también que la evidencia científica recoge que en modalidades como la natación, gimnasia y patinaje artístico no se ha mostrado evidencia acerca de la edad de iniciación en la modalidad a partir de los 8 años. En estas modalidades o disciplinas se estudiará, como se hace con el resto de modalidades, caso por caso, cual es el mejor proceso de iniciación priorizando el interés de los y las menores.

El coordinador de Anoeta ikastola está de acuerdo con ello y apoya dicho estudio, pero propone que, a partir de los 8 años, es decir a partir de la categoría benjamín, estos y estas escolares



hartzea eta modalitate horien eskaintza Multikirolaren osagarria izatea proposatzen du, gainerako modalitateekin egiten ari den bezala.

Beste batzuetan aipatu den bezala, helburua da modalitate guztiak arautzea, baina bakoitzak bere hausnarketa eskatzen du. Horregatik ari da prozesua mailakatzen. Helburua da urtero hainbat modalitate arautzea.

Lezoko udal-teknikariak gaineratu duenez, erregulazioa gauzatu arteko neurri bat izan daiteke udaletako teknikariak, eskatzea beren instalazioak uzterakoan, jarduera hori garatzen duten ikasleek Multikirola egin behar izatea. Hori gaur egun udalerrri batzuetan egiten da, klub batzuek ez baitute beren instalaziorik.

Eta beste honenbestez, bilerari amaiera eman dio Kiroletako Zuzendariak 19:50tan.

AKTAREN ZUZENKETA (2024/14/10)

Uztailaren 17an, Gipuzkoako Txirrindularitza Federazioak Kirol Zerbitzu honi jakinarazi zion aktan ez zirela federazio horren ekarpen hauek jaso:

Gipuzkoako Txirrindularitza Federazioko ordezkariak adierazi du ez dagoela ados, bere garaian, GFArekin urria eta ekaina bitartean adostutako eskola-egutegiarekin. Udako oporretan programaren barruan lehiaketarik egin ezin izateak modalitatearen berezitasunei jaramonik ez egitea deritzo.

GFAk erantzun du adostutako eskola-egutegiak behar adina jardunaldiz osatuta dagoela, eta lanaldi horietan hainbat diziiplina sartzen direla ikasleen garapen motorra aberasteko. Oporraldiko jarduerak programatik kanpo daude, modalitate guztietan, baina egin daitezke, betiere baldintzak betetzen badira eta GFari alde aurretik baimena eskatuta.

Txirrindularitza Federazioak eskola-kiroleko aseguruaren estaldurei buruzko informazioa ere eskatzen du, entitatei informazioa emateko. Informazioa e-mailez bidaltzen da, eta web-orrian ere eskuragarri dago. Azkenik, federazioak lehiaketetarako anbulantziak eta medikuak lortzeko zailtasun ekonomikoen eta giza baliabideen inguruko informazioa ematen du.

participen en multikirola y la oferta de estas modalidades sea complementaria a Multikirola, tal y como se está haciendo con el resto de modalidades.

Tal y como se ha comentado en otras ocasiones, el objetivo es ir regulando todas las modalidades, pero cada una requiere su propia reflexión. Es por eso que el proceso está siendo gradual. El objetivo es que cada año se vayan regulando diferentes modalidades.

El técnico municipal de Lezo añade que una medida hasta que se lleve a cabo la regulación puede ser que los y las técnicos de los ayuntamientos a la hora de ceder sus instalaciones soliciten que las y los escolares que desarrollen esa actividad tengan que hacer Multikirola. Esto es algo que a día de hoy se hacen en algunos municipios en los que hay clubes que no cuentan con sus propias instalaciones.

Finalmente, la Directora de Deportes de la DFG ha clausurado la reunión a las 19:50 horas.

CORRECCIÓN DE ACTA (10/14/2024)

El 17 de julio la Federación Guipuzkoana de Ciclismo informa a este Servicio de Deportes que en el acta no se recoge las siguientes aportaciones de dicha federación:

El miembro representante de la Federación Guipuzkoana de Ciclismo indica que se muestra en desacuerdo con el calendario escolar que en su día se acordó con la DFG entre octubre y junio. Indican que no poder realizar competiciones dentro del programa en las vacaciones de verano no atiende a las especificidades de la modalidad.

La DFG responde que el calendario escolar acordado consta de jornadas suficientes en el que se incluyen disciplinas diversas para enriquecer el bagaje motor de los y las escolares. Las actividades en periodo vacacional se enmarcan fuera del programa en todas las modalidades, pero se pueden realizar siempre y cuando se cumplan los requisitos y previa autorización a la DFG.

La Federación de Ciclismo también solicita información sobre las coberturas del seguro de deporte escolar, para informar a las entidades. Se manda la información por email, disponible también en la página web. Por último, la federación informa sobre las dificultades, económicas como de recursos humanos, para conseguir ambulancias y médicos para las competiciones.

Donostian, 2024ko ekainaren 20an

Sin.: ITSASO NABASKUES LASHERAS
Kirol Zerbitzuko teknikaria

Sin.: MARTA PASTOR BAÑALES
Lurralde Kontseiluko Lehendakariordea

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2024 06 05 akta_behin behinekoa_elebi